EGITEN JAKIN PROIEKTUA

Natura Zientziak

1

LEHEN HEZKUNTZA

Lehen Hezkuntzako 1. mailarako Natura Zientziak liburua Zubia Editoriala, S. L.ren eta Santillana Educación, S. L.ren Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarte**ren eta **Antonio Brandi Fernández**en zuzendaritzapean sortu, taxutu eta gauzaturiko talde-lana da.

Liburu honen prestatze- eta argitaratze-lanean honako talde honek esku hartu du:

TESTUA
Vicente Camacho Díaz
Sagrario Luna Rodríguez
Carmen Ríos Collantes de Terán
Mercedes Rodríguez-Piñero

IRUDIAK
Alademosca il·lustració
José Zazo

EDIZIOA
Ainhoa Basterretxea Llona
Vicente Camacho Díaz

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA
Joseba Santxo Uriarte
Maite López-Sáez Rodríguez-Piñero

SANTILLANA ZUBIA

Edukien mapa

Unitateak	Informazioa eta jarduerak			
1 Gure gorputza	Aurpegia	Gorputz atalak	Bost zentzumenak	
2 Osasuna zaintzen dugu	Osasuntsu egon nahi dugu	Gorputza zaintzen dugu	Kirola egiten dugu	
3 Ongi elikatzen gara	Eguneko otorduak	Elikadura osasungarria	Elikagaien jatorria	
4 Honelakoak dira animaliak	Izaki bizidunak	Nolakoak diren animaliak	Animaliak elikatu egiten dira	Animaliak ugaldu egiten dira
5 Oso animalia desberdinak	Non bizi diren animaliak	Animalia basatiak eta etxekoak	Ugaztunak eta hegaztiak	Arrainak, anfibioak eta narrastiak
6 Honelakoak dira landareak	Landareen bizitza	Landareen atalak	Basalandareak eta landatutakoak	Landareen erabilerak
7 Materialak ezagutzen ditugu	Zerez daude eginda gauzak?	Askotariko materialak	Materialak birziklatzen ditugu	
8 Makinak erabiltzen ditugu	Makinak lagungarri zaizkigu	Zenbait motatako makinak	Ordenagailua	
9 Gure proiektua	Arriskuan dauden animaliak			
AMAIERAKO BERRIKUSKETA				
GEHIAGO IRAKURRI				

Irakurri eta ulertu	Balioetan heztea	Egiten jakin
Berdinak gara, baina bereziak	Besteen lekuan jartzea	Arropa egokia aukeratzea
Oztoporik gabe	Ahalegina balioestea	Hortz-haginak zaintzen jakitea
Elikagaiak guztiontzat	Solidarioak izatea	Menu osasungarri bat aukeratzea
Harrizko gorpuak	Zientziaz interesatzea	Animalia baten fitxa betetzea
Animalia bitxi bat	Animaliak babestea	Maskota bat aukeratzea
Landare haragijaleak	Gauza berriak ikasteko grina izatea	Fruta eta barazkiak sailkatzea
Kontserbatu ditzagun basoak!	Papera alferrik ez xahutzea	Materialen aldaketei behatzea
Oso robot desberdinak	Segurtasun arauak errespetatzea	Makina baten piezak identifikatzea

Oinarrizko gaitasunak

Liburuan zehar, **HEZIBERRI**ren araberako oinarrizko gaitasunen ikurrak ikusiko dituzu zenbait jardueraren ondoan. Ikur horiek kasu bakoitzen zer gaitasun lantzen den adierazten digute.

Arloko gaitasunak

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna
- Matematikarako gaitasuna
- Zientziarako gaitasuna
- Teknologiarako gaitasuna
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
- Arterako gaitasuna gaitasuna
- Mugimendurako gaitasuna

Zehar-gaitasunak

- Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
- Elkarbizitzarako gaitasuna
- Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna
- Izaten ikasteko gaitasuna

Ordenagailuaren erabilera

Ikono honen bidez seinalatutako jarduerak ordenagailuz egin daitezke, pertsona helduren batek gainbegiratuta.

Aurkibidea

Lehen hiruhilekoa

1 Gure gorputza 6

2 Osasuna zaintzen dugu 16

3 Ongi elikatzen gara.....26

Bigarren hiruhilekoa

4 Honelakoak dira animaliak 36

5 Oso animalia desberdinak.....48

6 Honelakoak dira landareak.....60

Hirugarren hiruhilekoa

7 Materialak ezagutzen ditugu 72

8 Makinak erabiltzen ditugu 82

9 Gure proiektua:
Arriskuan dauden animaliak 92

Amaierako berrikusketa 98

Gehiago irakurri 102

4 Honelakoak dira animaliak

- Deskribatu irudiko paisaia eta aipatu bertan ikus daitezkeen animaliak.
- Aukeratu eta alderatu irudiko bi animalia. Esan zertan duten antza eta zertan bereizten diren.
- Zer animalia duzu gustukoen? Azaldu ikaskideei animalia horri buruz dakizuna.

EGITEN JAKIN

AMAIERAKO ATAZA

Animalia bat aukeratu, eta hari buruzko fitxa bat osatuko duzu.

Izaki bizidunak

1 Margotu izaki bizidunak.



2 Idatzi izaki bizidunen izenak.

Animaliak

Landareak

3 Pentsatu animaliei eta landareei buruz, eta markatu izaki bizidunen ezaugarri komunak.

- [ ] Jaio egiten dira.
- [ ] Lekualdatu egiten dira.
- [ ] Elikatu egiten dira.
- [ ] Ugaldu egiten dira.
- [ ] Ilea dute.
- [ ] Hitz egin dezakete.
- [ ] Hil egiten dira.
- [ ] Lo egiten dute.

Nolakoak diren animaliak



Animalia batzuek **hankak** dituzte eta oinez ibiltzen dira, lurrean. Gorputza **ilez** estalita daukate.

Zenbaitek **hegoak** dituzte eta hegan egiten dute. Gorputza **lumaz** estalita daukate.



Beste batzuek **hegalak** dituzte eta igeri egiten dute, uretan. Gorputza **ezkataz** estalita daukate.

Badira **gorputz biluzia** duten animaliak ere.

1 Markatu gorputz biluzia duen animalia.

2 Zerez daukate babestuta gorputza? Margotu.

ilez lumaz ezkataz



3 Nola lekualdatzen da animalia bakoitza? Osatu.



marrazoa

katua

zikoina

oinez ibiltzen da, lurrean.

4 Esan hankarik ez duten animalien izenak.

Animaliek ilez, lumaz edo ezkataz babestuta daukate gorputza.

Animaliak elikatu egiten dira

elefantea

hienak

Animalia batzuk landarez elikatzen dira. **Belarjale**ak dira.

Zenbaitek beste animalia batzuen haragia jaten dute. **Haragijale**ak dira.

txinpanzea

Beste batzuek denetarik jaten dute. Animalia **orojale**ak dira.

1 Zer jaten dute animaliek? Inguratu.

landareak haragia beste elikagai batzuk



2 Lotu.

belarjaleak	• Haragiz elikatzen dira.
haragijaleak	• Denetarik jaten dute.
orojaleak	• Landareak jaten dituzte.

3 Ikusi zer jaten duen animalia honek, eta osatu.

Bisontea animalia

_____ da,

_____ baitu.

4 Ipini zenbakiak eta azaldu zer gertatu den.

Elikadura kontuan hartuta, animaliak orojaleak, belarjaleak edo haragijaleak izan daitezke.

Animaliak ugaldu egiten dira

Animalia **bibiparoak** amaren sabeletik jaiotzen dira.

Obiparoak arrautzetatik sortzen dira. Hegazti guztiak dira obiparoak.

1 Idatzi animalia bibiparoen izenak.

2 Bibiparoa ala obiparoa da? Pentsatu nola jaiotzen den animalia bakoitza eta osatu.

Ahatea _____ da,

_____ baita.

Basurdea _____ da,

_____ baita.

3 Nola jaiotzen dira lehoiak? Jarri eranskailuak ordenan.

4 Lotu animalia bakoitza bere kumearekin.

Idatzi nola esaten zaion animalia bakoitzaren kumeari.

behia ▶ _____ ardia ▶ _____

untxia ▶ _____ txerria ▶ _____

Animalia bibiparoak amaren sabeletik jaiotzen dira, eta obiparoak, arrautzetatik.

Harrizko gorpuak

Gizakiak Lurrean agertu baino askoz lehenago desagertu ziren dinosauroak. Fosilei esker dakigu nolakoak ziren.

Fosil esaten zaie izaki bizidunen gorpuei, lurperatu eta denborarekin harri bihurtzen direnean.

Fosilak aztertuta argitu dute zientzialariek zer motatako dinosauroak zeuden, nola elikatzen ziren...

1 Azaldu zure hitzekin zer diren fosilak.

2 **Balioetan heztea.** Zientziaz interesatzen naiz.

- Zure ustez, garrantzitsua al da zientzialarien lana?
- Zer ikertu nahiko zenuke zuk?

EGITEN JAKIN

Animalia baten fitxa betetzea

1 Aukeratu animalia hauetako bat, ikertu eta osatu fitxa.

IZENA: _____

Non bizi da? _____

Nola lekualdatzen da? _____

Zerez estalita dauka gorputza? _____

Zertaz elikatzen da? _____

Nola ugaltzen da? _____

Beste ezaugarri batzuk: _____

1 **Laburpena.** Gogoratu ikasitakoa eta osatu.

jaio | bizidunak | hil | animaliak

Gizakiak, _____ eta

landareak izaki _____ gara.

Izaki bizidunak _____, hazi,

ugaldu eta _____ egiten gara.

2 Gorputzeko zer atal erabiltzen dute lekualdatzeko? Idatzi.

hegalak | hankak | hegoak





hankak | _____ | _____

3 Idatzi animalien izenak.

Ilea du.	Lumak ditu.	Ezkatak ditu.
_____	_____	_____
_____	_____	_____

4 Inguratu lau animalia obiparoak.

5 Pentsatu zertaz elikatzen garen, aukeratu eta osatu.

belarjaleak | haragijaleak | orojaleak

Pertsonok animalia _____ gara;

izan ere, _____

6 Idatzi animalia honi buruz dakizun guztia.

_____

_____

_____

7 Nola lekualdatzen da sugea? Idatzi.

_____